

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

6113

178/2018 DEKRETUA, abenduaren 11koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez egindako akordioa, Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa.

Irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Batzorde Mistoaren akordio bat onartu zen, eta akordio horren 2. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz eta bertan eskatutako formalizazio-izapideak betetzeko, dekretu honek, batetik, akordio hori onartu eta argitaratzen du, eta bestetik, eskualdatutako baliabideak atxikitzen ditu. Izan ere, abenduaren 7ko 1434/2018 Errege Dekretuaren terminoetan jasota dago Transferentzien Batzorde Mistoak 2018ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran egindako akordioa, zeina Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa baita.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, aurretiaz Lehendakariak onartuta eta Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea, abenduaren 7ko 1434/2018 Errege Dekretuan ezarritako terminoetan, Transferentzien Batzorde Mistoak 2018ko azaroaren 26an egindako akordioa, zeina Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa baita, eta agintzea errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitara dadila Dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak eta horien baliabide materialak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailari atxikita geratuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

ABENDUAREN 11KO 178/2018 DEKRETUAREN ERANSKINA

ABENDUAREN 7KO 1434/2018 ERREGE-DEKRETUA, BASURTUKO
OSPITALEA-ARIZ ETA IRAUREGI-LUTXANA-BARAKALDO TRENBIDE-LINEEI
DAGOKIENEZ ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK TRENBIDEEN ETA TRENBIDEKO
GARRAIOAREN ARLOETAN DITUEN EGINKIZUNAK ETA ZERBITZUAK EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEARI BURUZKOA

Konstituzioaren 149.1.21 artikuluan ezarrita dago Estatuak duela eskumen eskusiboa autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gainean.

Horrez gain, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du trenbideen eta lurreko garraioen arloetan. Bestalde, 12.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, orobat, jatorria eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan dituen salgai- zein bidaiari-garraioaren antolamenduari buruz Estatuak duen legeria betearaztea.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 2. artikuluan hainbat helburu daude bilduta, hala nola Estatuan trenbideko garraio-sistema komun bat bermatzea eta trenbideko garraioaren politika europar erkidearen garapena erraztea, trenbide-sistemen interkonexio eta elkarreragingarritasuna eta garraio-zerbitzuen intermodalitatea lagunduz.

Irailaren 29ko 38/2015 Legeak 4. artikuluan ezartzen du ezen, trenbide-azpiegitura jakin bat Interes Orokorreko Trenbide Sarean sartzeari justifikatu zuten interes orokorreko arrazoiak desgertutakoan, azpiegitura hori dagokion autonomia-erkidegoari eskualdatu ahal izango zaiola, Ministro Kontseiluak horri buruzko espedientea ebatzi ondoren.

Ondorioz, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 23ko 124/2016 Epaiaren edukiaren arabera, Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu behar zaizkio, Interes Orokorreko Trenbide Saretik kanpo geratu baitira.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren bidez, trenbideak ezartzeko, antolatze, ustiatzeko eta ikuskatzeko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatu zitzaizkion.

Azkenik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrek eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dituzte Estatu Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko modua eta prozedura.

Batzorde Mistoak, zeina Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean jasota baitago, akordio bat egin zuen 2018ko azaroaren 26ko bilkuran; hain zuzen ere, erabaki zuen Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatu Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea. Akordio hori Gobernura bidali da, hark errege-dekretu bidez onar dezan.

Ondorioz, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko, Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroaren proposamenez eta Ministro Kontseiluak 2018ko abenduaren 7ko bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Batzorde Mistoaren akordioa onartzea.

Onartzea Batzorde Mistoak —Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean jasoa— 2018ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran egindako akordioa, Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa. Akordio hori errege-dekretu honen eranskin gisa agertzen da.

2. artikulua.— Eginkizunak eta zerbitzuak gehitzea.

Horrenbestez, eskualdatu egiten dira Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak, Batzorde Mistoaren akordioan ageri denari jarraituz eta han jasotzen diren termino eta baldintzen arabera.

3. artikulua.— Gehikuntzaren eraginkortasuna.

Batzorde Mistoaren akordioan adierazten den egunetik aurrera izango ditu ondoreak eskualdatzeak.

AZKEN XEDAPENA.— Indarrean jartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madrilén, 2018ko abenduaren 7an.

FELIPE E.

Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroa,
MERITXELL BATET LAMAÑA.

ABENDUAREN 7KO 1434/2018 ERREGE-DEKRETUA ERANSKINA

TRANSFERENTZIEN BATZORDE MISTOAREN 2018KO AZAROAREN 26KO AKORDIOA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, zeinak Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoko idazkari baitira, honako hau

ZIURTATZEN DUTE:

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2018ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran erabaki bat hartu zuen, zeina Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa baita; eskualdatzea baldintza hauetan egingo da:

A) Eskualdatzea babesten duten Konstituzioko, estatutuetako eta legezko arauak.

Konstituzioaren 149.1.21 artikuluan ezarrita dago Estatuak eskumen eskusiboa duela autonomia-erkidego batetik baino gehiagotik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gainean.

Horrez gain, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du trenbideen eta lurreko garraioen arloetan. Bestalde, 12.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, orobat, jatorria eta helmuga Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan dituen salgai- zein bidaiari-garraioaren antolamenduari buruz Estatuak duen legeria betearaztea.

Trenbide Sektorearen irailaren 29ko 38/2015 Legearen 2. artikuluan hainbat helburu daude bilduta, hala nola Estatuan trenbideko garraio-sistema komun bat bermatzea eta trenbideko garraioaren politika europar erkidearen garapena erraztea, trenbide-sistemen interkonexio eta elkarreragingarritasuna eta garraio-zerbitzuen intermodalitatea lagunduz.

Irailaren 29ko 38/2015 Legeak 4. artikuluan ezartzen du ezen, trenbide-azpiegitura jakin bat Interes Orokorreko Trenbide Sarean sartzeari justifikatu zuten interes orokorreko arrazoiak desgertutakoan, azpiegitura hori dagokion autonomia-erkidegoari eskualdatu ahal izango zaiola, Ministro Kontseiluak horri buruzko espedientea ebatzi ondoren.

Ondorioz, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 23ko 124/2016 Epaiaren edukiaren arabera, Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu behar zaizkio, Interes Orokorreko Trenbide Saretik kanpo geratu baitira.

Abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren bidez, trenbideak ezartzeko, antolatzeko, ustiatzeko eta ikuskatzeko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatu zitzaizkion.

Azkenik, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dituzte Estatuko Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko modua eta prozedura.

Horiek horrela, arau-aurreikuspenok oinarri hartuta, formalizatu egin behar da Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineei dagokienez Estatuko Administrazioak

trenbideko garraioaren arloan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzko akordioa.

B) Eskualdatzen diren zerbitzuak:

1) Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ditu Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo lineei dagokienez orain arte Estatuko Administrazioak garatzen zituen administrazio eta trenbide zerbitzuetako eginkizunak eta zerbitzuak.

2) Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen dituen eginkizunak hauek dira: aipaturiko zerbitzuen erregulazioa, plangintza, kudeaketa, koordinazioa eta ikuskapena, eta, bereziki, esandako lineetako trenbide-zirkulazioaren segurtasuna kudeatzearekin zerikusia duten eginkizunak.

3) Autonomia-erkidegoak eginkizun horiek bere gain hartutakoan, operadoreek bermatuta izan behar dute eskualdatu diren lineetarako eta linea horien geltokietarako irispidea; izan ere, aukera izan behar dute horiek guztiak erabiltzeko, Estatuaren Interes Orokorreko Trenbide Sarean trenbide-zerbitzuak eskaintze aldera.

C) Lankidetzako formula instituzionalak:

1) Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren organo eskudunek izan behar duten koordinazioa ziurtatzeko, bi administrazioek lankidetzak hitzarmenak egin ditzakete, trenbide-zerbitzuak eskaintzeko behar diren lankidetzak eta baterako jarduketak erraztuko dutenak egoki diren arloetan.

2) Lankidetzak horrek arreta berezia ipiniko dio trenbide-azpiegitura horien eta Interes Orokorreko Trenbide Sarearen arteko konexioa bultzatzeari, sare guztien elkarreragingarritasuna sustatzea baita helburua. Trafikoaren erregulazioarekin eta segurtasun-instalazioen mantentze-lanekin zerikusia duten alderdiak ere zehaztuko dira.

D) Eskualdatzen diren ondasun, eskubide eta betebeharrak:

1) Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzen zaizkio eskualdatzearen xede diren eginkizunak eta zerbitzuak direla-eta berari dagozkion ondasunen titulartasuna eta ustiaketa, bai eta eskubideak eta betebeharrak ere, 1. zerrendan ageri diren terminoetan.

Ministro Kontseiluak erabaki baten bidez ezarri eta onartutako arau-aurreikuspenak betetzearen baldintzapean jarri da eskualdatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak beharrezkoa den tresna juridikoa sinatuko dute, eta han zehaztuko dute 0/000 kilometro-puntutik –lineak igarotzen direnetik– geltokietan sartzeko seinale aurreratua kokatuta dagoen kilometro-punturaino trafikoa erregulatzeko, segurtasun-instalazioak mantentzeko eta bestelako nahitaezko alderdiak zaintzeko betebeharrak.

Edozein kasutan, Basurtuko eta Irauregi geltokiek Interes Orokorreko Trenbide Sarearen barruan egoten jarraituko dute; dena dela, Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako zerbitzuek eskualdatu diren azpiegituratik zirkulatzen badute, jatorria edo helmuga geltoki horietan izanik, aukera izango dute geltoki horietan sartzeko eta estazionatzeko, bai eta haietan sartzeko eta jarduteko erabili behar duten trenbide-lineako bide-zatia erabiltzeko ere. Horretarako, ordea, azpiegitura-administrazioaileen artean akordioa egin behar da, trafiko-jardueren lankidetzak egokia bermatze aldera.

Aintzat hartuta Lutxanako geltokiaren titularkidetasuna eta geltoki hori Estatuaren Interes Orokorreko Trenbide Sarearen eta Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako trenbide-lineen zerbitzu publikoari lotuta dagoela, bi administrazioek hitzarmen bat sinatuko dute, zeinean eza-erriko baita geltokiaren titularkidetasunaren eta baterako kudeaketaren erregimena; horretarako, besteak beste, azpiegituretako bakoitzaren zirkulazio-ehunekoa hartuko da kontuan.

2) Hauek dira Sustapen Ministerioak, FEVEk, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bilbao Ría 2000k 2010eko ekainaren 17an sinatu zuten hitzarmenaren ondoriozko aktiboak eskualdatzeko baldintzak: hitzarmenetik etorritako betebeharrak beteko dira; hura likidatuko da, eta aurrez ADIFek jasotako obrak Euskal Autonomia Erkidegoari entregatuko zaizkio akordio hau sinatu eta sei hilabete igaro baino lehen.

3) Akordio hau onartzen duen errege-dekretua indarrean jarri eta hiru hilabeteko epean sinatuko dira, hala badagokio, entregatze- eta harrera-aktak.

4) Aipaturiko zerrendan zuzenketarik egin behar izanez gero, bi administrazioek egiaztatu beharko dute puntu hori, Transferentzien Batzorde Mistoko Idazkaritzak emandako ziurtagiriaren bitartez.

5) Euskal Autonomia Erkidegoa orain arte Estatuak trenbide-linea horien titular izateagatik izan duen egoera juridikoan subrogatuko da. Horrek ez du kentzen Estatuak bere kargu mantentzea eskualdatzearen eraginkortasun-egunera arte galda daitezkeen betebeharrak eta eskubideak,

E) Eskualdatzearen eraginpeko aurrekontu-kredituak.

Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa, 2018ko ekitaldian, 2. zerrendan jasotakoa izango da.

F) Dokumentazioa eta espedienteak entregatzea.

Eskualdatzen diren eginkizunen eta zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak hilabeteko epean entregatu behar dira, akordio hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

G) Eskualdatzearen eraginkortasun-eguna.

Akordio hau onartzen duen errege-dekretua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina akordioaren xedeko eginkizun- eta zerbitzu-eskualdatzeak.

Eta hala ager dadin, ziurtagiri hau ematen da, Bilbon, 2018ko azaroaren 26an. Batzorde Mistoa-ren idazkariak, Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

1. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIZKION ONDASUN, ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaio Basurtuko Ospitalea-Ariz (0/000 KPtik 7/906 KPra) eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo (0/000 KPtik 5/810 KPra) trenbide-lineen titulartasuna.

Bi administrazioek eta, hala badagokio, trenbide-administratzaileek zirkulazio-baldintza batzuk ezarriko dituzte, eta haietatik eratorriko dira hala kudeaketa nola eragiketak; edozein kasutan, kontuan hartu behar da Basurtuko Ospitaleko geltokiko lineen arteko konexio-puntua 1/236 KP (ASFA baliza) izango dela eta Irauregi-geltokikoa, berriz, 0/020 KP.

Harik eta zirkulazio-baldintzak ezarrita egon arte, ADIFek jarraituko du behin-behinean lineak kudeatzen, eskualdatzen diren bide-zatien abiapuntutik hasi eta ASFA baliza dagoen kilometro-punturaino –baliza Basurtuko Ospitaleko eta Irauregi-geltokietako seinale aurreratuekin lotuta dago, zeinak Basurtuko Ospitalea-Ariz linearen 1/507 KPn eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo linearen 1/748 KPn kokatuta baitaude, hurrenez hurren–.

2018ko abenduaren 14a, ostirala

I. ERANSKINA
AKTIBOAK

AKTIBOAREN DESKRIBAPENA	UDAL-MUGARTEA:	HASIERAKO AMAIERAKO km	LURZORUA (m ²)		AZALERA ERAIKIAK (m ² eraikiak) ERAIKUNTZAK		BIDE-ZATIAREN KODEA	BIDE-ZATIAREN / GELTOKI TERMINALAREN DESKRIBAPENA	KONTABILITATEKO IBILGUTUMOTA	AKTIBOAREN KODEA	GELTOKIAREN/ TERMINALAREN KODEA
			EREMUA (hemibideak)	GELTOKIAREN N. EREMUA	GELTOKIA	ETXEBIZITZAK BESTELAKOAK					
24.01.0840 inbentario-unitatea	Bilbo	0/000	152	2929*							
24.04.0010 inbentario-unitatea	Bilbo	0/386	4/290	44.857							
24.04.0020 inbentario-unitatea	Arrigorriaga	4/290	5/127	3.638							
24.04.0030 inbentario-unitatea	Basauri	5/127	7/131	13.572							
24.04.0040 inbentario-unitatea	Basauri	7/131	7/906	20.294							
Tunela	Arrigorriaga eta Basauri	4/653	5/264								
Erakina 24.04.0010 inbentario-unitatea La Peña ko etxetxo	Bilbo	3/390			77		087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Erakinak	002110012324	
Erakina 24.04.0010 inbentario-unitatea Etxola	Bilbo	3/400					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Erakinak	002110012326	
Erakina 24.04.0040 inbentario-unitatea Saigalen geltokia	Basauri	7/748		156.40				ARIZKO TERMINALA	Erakinak	002111027389	05713
Kontagailuen gela 24.04.00100 inbentario-unitatea	Basauri	7/996			5			ARIZKO TERMINALA	Erakinak	002111027919	05713
Bide- eta obra-etxola 24.04.00100 inbentario-unitatea	Basauri	7/384			12.67			ARIZKO TERMINALA	Erakinak	002111027914	05713
EIMAKUMEEN ALDAGELA											
24.01.0765 inbentario-unitatea	Alonsotegi	0/000	299	9228**							
39.01.1276 inbentario-unitatea	Alonsotegi	0/587	1/019	7.120							
39.01.1278 inbentario-unitatea	Barakaldo	1/019	4/772	71.048							
39.01.1280 inbentario-unitatea	Barakaldo	4/772	5/810	38.819							
39.01.1276 inbentario-unitatea Lokalen erakina	Barakaldo	1/800			83						
39.01.1278 inbentario-unitatea Etxebiziza-bakea	Barakaldo	4/363		200.30							
39.01.1280 inbentario-unitatea Etxebiziza-bakea	Barakaldo	4/910		444							
Utegia	Barakaldo	5/175			19						
ARIZKO AZBARRENGO GELTOKIA KATIGATZE ELEKTRIKOAREN HASIERA: 7/258; AMAIERA: 8/410		7/258	8/410				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Seinaleztapen-instalazioak	002120515097	
BASKONIA TRENBIDE-PASAGUNEA (4. ZK.: 6/009 KP)		6/009					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Seinaleztapen-instalazioak	002120515276	
5 IGORGAILU: LUTXANA, ARIZ							087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120818762	
IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIO-SAREA, BASURTU - ARIZ/AZBARREN BIDE-ZATIA: HASIERA: 0/000; AMAIERA: 8/410		0/000	8/410				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120818831	
BASURTU - ARIZ/AZBARREN ADARRA: TELEFONIA- INSTALAZIOAK: HASIERA: 0/000; AMAIERA: 8/410		0/000	8/410				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002128621084	
ETXE-ERRE ZUBIA; HASIERAKO KP: 2/688		2/688					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120022865	
MADARIAGAKO TUNELAREN HASIERA: 5/695; AMAIERA: 5/933		5/695	5/933				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120023337	
RENFeko TUNELA; HASIERA: 6/287; AMAIERA: 6/349		6/287	6/349				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120023344	
OLLARGANGO TUNELA; HASIERA: 4/654; AMAIERA: 5/743		4/654	5/743				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120023346	
SAN ADRIANGO TUNELA; HASIERA: 1/222; AMAIERA: 2/364		1/222	2/364				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120023347	
BASURTU - ARIZ ADARRA: 0/000 - 7/750		0/000	7/750				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120200133	
ARIZKO AZBARRENGO GELTOKIA: 7/258 - 7/750 HASIERA		7/258	7/750				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Plataforma	002120200630	
SAN ADRIANGO TUNELA - BALASTOA		1/222	2/364				087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114923	

2018ko abenduaren 14a, ostirala

AKTIBOAREN DESKRIBAPENA	UDAL-MUGARTEA:	HASERAKO km	AMAIERAKO km	LURZORUA (m ²)		AZALERA ERAIKIAK (m ² eraikiak). ERAIKUNTZAK.		BIDE-ZATIAREN KODEA	BIDE-ZATIAREN / GELTOKI TERMINALAREN DESKRIBAPENA	KONTABILITATEKO IBILGETU MOTA	AKTIBOAREN KODEA	GELTOKIAREN/ TERMINALAREN KODEA
				EREMUA (herribideak)	GELTIKOARE N EREMUA	GELTOKIA	ETXEBIZTIZAK BESTELAKOAK					
OLLARGANGO TUNELAREN ETA MADARIAGAKO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - TRABESA	5/743	5/895	5/895					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114924	
SAN ADRIANGO TUNELA - BALASTOA	1/222	2/364	2/364					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114927	
BASURTU - SAN ADRIANGO TUNELA - TRABESA	1/222	2/364	2/364					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114928	
BASURTU - SAN ADRIANGO TUNELA - BALASTOA	1/222	2/364	2/364					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114929	
SAN ADRIANGO TUNELA - TRABESA	1/222	2/364	2/364					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114931	
SAN ADRIANGO TUNELAREN ETA OLLARGANGO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - TRABESA	2/364	5/764	5/764					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114933	
SAN ADRIANGO TUNELAREN ETA OLLARGANGO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - TRABESA	2/364	5/764	5/764					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114934	
SAN ADRIANGO TUNELAREN ETA OLLARGANGO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - BALASTOA	2/364	5/764	5/764					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114935	
OLLARGANGO TUNELA - ERREIA	4/654	5/743	5/743					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114936	
OLLARGANGO TUNELA - TRABESA	4/654	5/743	5/743					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114937	
OLLARGANGO TUNELA - BALASTOA	4/654	5/743	5/743					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114938	
SAN ADRIANGO TUNELA - ERREIA	1/222	2/364	2/364					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114940	
OLLARGANGO TUNELAREN ETA MADARIAGAKO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - BALASTOA	5/743	5/895	5/895					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114950	
OLLARGANGO TUNELAREN ETA MADARIAGAKO TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - ERREIA	5/743	5/895	5/895					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114960	
RENFeko TUNELA - BALASTOA								087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114977	
MADARIAGAKO TUNELA - ERREIA	5/695	5/933	5/933					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114978	
MADARIAGAKO TUNELA - TRABESA	5/695	5/933	5/933					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114979	
MADARIAGAKO TUNELA - BALASTOA	5/695	5/933	5/933					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114980	
MADARIAGAKO TUNELAREN ETA RENFeko TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - ERREIA	5/633	6/267	6/267					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114981	
MADARIAGAKO TUNELAREN ETA RENFeko TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - TRABESA	5/633	6/267	6/267					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114982	
MADARIAGAKO TUNELAREN ETA RENFeko TUNELAREN ARTEKO GANEGITURA - BALASTOA	5/633	6/267	6/267					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114983	
RENFeko TUNELA - TRABESA	6/267	6/349	6/349					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114985	
RENFeko TUNELA - ARIZKO GELTOKIA - BALASTOA	6/349	7/750	7/750					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114986	
RENFeko TUNELA - ARIZKO GELTOKIA - ERREIA	6/349	7/750	7/750					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114987	
RENFeko TUNELA - ARIZKO GELTOKIA - TRABESA	6/349	7/750	7/750					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114988	
RENFeko TUNELA - ERREIA	6/267	6/349	6/349					087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114994	
LUR-BERDINKETA, BASAURIKO UDAL-MUGARTEAREN HASIERATIK ARIZKO/ZABARRENGO GELTOKIRA								087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Lursailak	002100073743	
LUR-BERDINKETA, ARRIGORRIAGAKO UDAL- MUGARTEAREN HASIERATIK AMAIERARA								087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Lursailak	002100073744	
BASURTUKO LURPERATZEAREN LUR-BERDINKETA, BIBOKO UDAL-MUGARTEAREN AMAIERARAINO								087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Lursailak	002100073745	
ARIZKO/ZABARRENGO GELTOKIA								087820010	BASURTUKO OSPITALEA - ARIZ BIDE-ZATIA	Lursailak	002100073768	
LUTXANAKO GELTOKIA: KATIGATZE ELEKTRIKOAREN HASIERA: 4/779; AMAIERA: 5/794	4/779	5/794	5/794					087840010	IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDO BIDE- ZATIA	Senaiezapen-instalazioak	002120515089	
LUTXANAKO GELTOKIA - BIDAIAREN ERAKINA: IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIOA									IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120818745	

2018ko abenduaren 14a, ostirala

AKTIBOAREN DESKRIBAPENA	UDAL-MUGARTEA:	HASERAKO km	LURZORUA (m ²)		AZALERERAIRAKIAK (m ² eraikiak). ERAIKUNTZAK.		BIDE-ZATIAREN KODEA	BIDE-ZATIAREN / GELTOKI TERMINALAREN DESKRIBAPENA	KONTABILITATEKO IBILGETU MOTUA	AKTIBOAREN KODEA	GELTOKIAREN/ TERMINALAREN KODEA
			EREMUA (herribideak)	GELTIKOARE N EREMUA	GELTOKIA	ETXEBIZTIZAK BESTELAKOAK					
LUTXANAKO GELTOKIA - BIDAIARIEN ERAIKINA: IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIOA - MOTOROLA GP 360 IRRATI ERAMANGARRIA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120818746	
LUTXANA-IRAUREGI ADARRA: TELEFONIA- INSTALAZIOAK; HASIERA: 0/000; AMAIERA: 5/794	0/000	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120821104	
LUTXANAKO GELTOKIA - BIDAIARIEN ERAIKINA: TELEFONIA-INSTALAZIOAK								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Telekomunikazio- instalazioak	002120821138	
BILBOKO GELTOKIA BIRMOJATZEKO PROIEKTURAKO LAGUNTZA TEKNIKOA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Beste ibilgetu batzuk	002010010054	
LUTXANAKO ADARREAN, RENFEREN GAINEKO ZUBIEN EGOERA AZTERTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Beste ibilgetu batzuk	002010010093	
ZUBILETA KALEKO ZUBIA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Plataforma	002120022865	
LUTXANA-IRAUREGI ADARRA, HASIERA: 0/000; AMAIERA: 5/794	0/000	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Plataforma	002120200134	
LUTXANAKO GELTOKIA, HASIERA: 4/779; AMAIERA: 5/794	4/779	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Plataforma	002120200628	
IRAUREGIKO GELTOKIA - LUTXANAKO GELTOKIA - ERREIA	0/000	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114989	
IRAUREGIKO GELTOKIA - LUTXANAKO GELTOKIA - BALASTOA	0/000	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120114990	
IRAUREGIKO GELTOKIA - LUTXANAKO GELTOKIA - TRABESA	0/000	5/794						IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Trenbide-gainegitura	002120115018	
LUTXANAKO GELTOKIA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Lursailak	002100073661	
LUR-BERDINKETA, BARAKALDOKO UDAL- MUGARTAREN HASIERATIK LUTXANAKO GELTOKIRA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Lursailak	002100073662	
LUR-BERDINKETA, IRAUREGIKO GELTOKITIK ALONSOITEGIKO UDAL-MUGARTAREN AMAIERARA								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Lursailak	002100073663	
IRALAREN LURPERATZEA ETABESTE JARDUKETA BATZUK								IRAUREGHLUTXANA-BARAKALDOBIDE-ZATIA	Lursailak		
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - ERREIA								ARIZKO TERMINALA	Aribideko inbentsioak		
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - TRABESA								ARIZKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115084	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - BALASTOA								ARIZKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115104	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - BALASTOA								ARIZKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115115	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - BALASTOA (TOBERA)								ARIZKO TERMINALA	Sinalizeztapen-instalazioak	002120518763	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - BIDAIARIEN ERAIKINA: TELEFONIA-INSTALAZIOAK								ARIZKO TERMINALA	Telekomunikazio- instalazioak	002120820868	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - BIDAIARIEN ERAIKINA: IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIOA								ARIZKO TERMINALA	Telekomunikazio- instalazioak	002120820869	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA - GELTOKIA								ARIZKO TERMINALA	Erakinak	00211027404	05713
ARIZKO/AZBARRENKO GELTOKIA								ARIZKO TERMINALA	Erakinak	00211028518	05713
ARIZKO GELTOKIA: ARRIKUEZ OHARTARATZEKO KARTELA								ARIZKO TERMINALA	Logistika- eta merkataritza- instalazioak	002150030191	05713
ARIZKO GELTOKIA: PORTIKO-GARABIA								ARIZKO TERMINALA	Logistika- eta merkataritza- instalazioak	002150031526	05713
ARIZKO GELTOKIA: PORTIKO-GARABIA								ARIZKO TERMINALA	Logistika- eta merkataritza- instalazioak	002150031527	05713
ARIZKO PORTIKORAKO ERRODADURA-BIDEA (BILBO- BALMADEA) BIRGANTZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA								ARIZKO TERMINALA	Bestelako ibilgetua	002010010119	05713
ARIZKO GELTOKIKO TXARTEL-LEIHATILA								ARIZKO TERMINALA	Bestelako ibilgetua	002160034588	05713
ARIZERAKO AULKIA								ARIZKO TERMINALA	Bestelako ibilgetua	002160034657	05713
LUTXANAKO GELTOKIA - BALASTOA (6455)								LUTXANA-BARAKALDOKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115112	13305
LUTXANAKO GELTOKIA - TRABESA								LUTXANA-BARAKALDOKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115113	13305
LUTXANAKO GELTOKIA - ERREIA								LUTXANA-BARAKALDOKO TERMINALA	Trenbide-gainegitura	002120115114	13305

Oharra: Iratze-Luxena-Berakio linea eta Ariz-Basurto-Ostalea linea elektrifikatu gabeko trenbide bakarrekoak dira, eta hala ageri dira 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen Sarearen Aitorpenaren 5.1 napan.
Oharra: Iratze-Luxena-Berakio linea eta Ariz-Basurto-Ostalea linea elektrifikatu gabeko trenbide bakarrekoak dira, eta gaur egun kaleratuta daude, eta gaur egun kaleratuta daude.
* Metro bideak: Iratze-Luxena-Berakio linea eta Ariz-Basurto-Ostalea linea elektrifikatu gabeko trenbide bakarrekoak dira, eta gaur egun kaleratuta daude, eta gaur egun kaleratuta daude.
** Metro bideak: Iratze-Luxena-Berakio linea eta Ariz-Basurto-Ostalea linea elektrifikatu gabeko trenbide bakarrekoak dira, eta gaur egun kaleratuta daude, eta gaur egun kaleratuta daude.

2018ko abenduaren 14a, ostirala

II. ERANSKINA
ONDASUNEN EMAKIDAK, ERRENTAMENDUAK ETA HITZARMENAK

IZAERA	TITULARRA	XEDEA	HASIERAKO KM	AMAIERAKO KM	AZALERA (M ²)	UNITATEA	HASIERA-DATA
Jabari publikoko enakida	Bizkaiko Foru Aldundia	Metropoli hegoaldeko salhesbidearen hegala, 88 bide-zaila (Larrauskilu-Buln)	2444	2/527	901,64	24,04,010	2007/01/08
Jabari publikoko enakida	Bilboko Udala	Buln auzoan sartzeko dagoen gaineko pasabidea handitzea	4/600			24,04,010	2012/07/12
Jabari publikoko enakida	Iberdrola Distribución SAU	Korronte auzerako linea elektrikoaren elkargunea, Larrauskilu-Asua 1-2	3/105	3/429	2.569	24,04,010	2016/11/01
Jabari publikoko enakida	Naturgas Energía Distribución SAU	Gas-hodien elkargunea, Sarriatu eremua	6/665	7/099	44	24,04,0030	2015/03/01
Jabari publikoko enakida	Basauriko Udala	Karaaga Berlekoa kaleko urbanizazioa, Tinelaren gainean.	6/252	6/402		24,04,0030	2002/07/15
Jabari publikoko enakida	Basauriko Udala	Pozkoetxe kolektorearen sanamendu-hodieria lur azpian gurutzatzea, 1. fasea	6/663			24,04,0030	2009/05/14
Jabari publikoko enakida	Basauriko Udala	Plaza urbanizazioa			14	24,04,0030	1981/09/16
Jabari publikoko enakida	Basauriko Udala	Kantabria parkearen okupazioa eta itoa			340	24,04,0040	1979/07/10
Jabari publikoko enakida	Basauriko Udala	Arizko edukiontzien terminala itoa	7/870	7/921		24,04,0040	2001/09/11
Jabari publikoko enakida	Euskaltel	Komunikazio-lineak instalatzea	7/870	7/931	63	24,04,0040	2000/08/09
Errentamendua	Luis Angel Martínez Oña	Landa-lusailen errentamendua	3/360	3/445	1.398	24,04,010	2016/08/01 - 2023/05/31
Kudeaketa-hizarmena	RENFE MERCANCÍAS ESTATUKO MERKATARITZA-SOZJETAIA	Arizko eta Lubana-Barakaldoko salgaien terminalak				24,04,0040	2013/01/01 - 2018/12/31
Jabari publikoko enakida	IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU	Ahorsetegiko azpiestatzaioa - Orneliako azpiestatzaioa 2 linea elektriko	0/619	0/866	890	39,01,1276	2016/11/01 - 2021/10/31
Jabari publikoko enakida	IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU	Basauriko azpiestatzaioa - Reuterikoko azpiestatzaioa linea elektrikoaren elkargunea	1/350		44	39,01,1278	2018/11/01 - 2023/10/31
Jabari publikoko enakida	IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU	Ahorsetegiko azpiestatzaioa - Oxinorteko azpiestatzaioa linea elektriko	1/110	1/222	1.066	39,01,1278	2016/11/01 - 2021/10/31
Jabari publikoko enakida	Bizkaiko Foru Aldundia	Metropoli hegoaldeko salhesbidearen salhesbidea, 6 bide-zaila, Cadaguraren itzea.	1/268	1/461	738,13	39,01,1280	2008/01/08
Jabari publikoko enakida	IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU	Matalena-Balmaseda linea elektrikoaren elkargunea	5/900		50	39,01,1280	2012/05/15
Errentamendua	Jacine Ranero Villalón	Delicias kalea 11, 1. ikala (Barakaldo)	1/782		13	39,01,1276	2015/11/01 - 2020/10/31
Errentamendua	Juan Manuel Moreno Murciano	Delicias kalea 11, 2. eta 8. ikalak (Barakaldo)	1/782		30	39,01,1276	2016/12/01 - 2021/11/30
Errentamendua	Guillermo de la Fuente García	Delicias kalea 11, 3. eta 5. ikalak (Barakaldo)	1/782		20	39,01,1276	2017/01/01 - 2021/12/31
Errentamendua	Luis Javier Seco Villavilla	Delicias kalea 11, 1.1. ikala (Barakaldo)	1/782		30	39,01,1276	2015/04/01 - 2020/03/31
Errentamendua	SIBELCO MINERALES SA (lehen, ARENAS DE ARJUA SA)	Harea-biltegjak	5/000		5.268,49	39,01,1280	1977/11/17 (1)
Errentamendua	DESQUACE INDUSTRIAL Y NAVAL SL (DINA)	Itasontziak desegitea eta, gero, trenbide-linearen bidez garraiatzea	5/900		4.800	39,01,1280	2003/01/01 (2)
Jabari publikoko enakida	ADIF	Kal baten enakida Cadagua ibaian (3). 1.957/12/16ko ERREGE-AGINDUA					1909/08/07
Hizarmena	FEVEK Barakaldoko Udalak eta Burtzeta Enpresa Parkea SAK sinatua.	Barakaldoko Burtzetako 05 BEPren garapena					Mugan gabe 2005/10/26

(1) Mugarik gabekoa, salgaien trenbideko garraiabari idua.
(2) Isibidezko luzapenak ditu ezarrita, eta salgaien trenbideko garraiabari lotua dago.
(3) Enakidako lursailak DINA merkataritza-sozetateak erabiltzen ditu gaur egun.

2. ZERREDA

ESTATU-MAILAKO URTEKO KOSTU OSOA

2018KO EKITALDIKO ZUZKIDURAK

17. ATALA SUSTAPEN-MINISTERIOA

	Kapitulua	Zenbatekoa eurotan
17.01.451N	1	18.260
17.01.451N	2	6.920
17.01.451N	6	1.740
17.20.451N	8	1.436.690
17.20.453A	2	550
17.20.453A	6	51.550
17.20.453A	7	659.950
17.20.000X	4	22.380
17.20.000X	7	14.950
GUZTIRA		2.212.990